

TEKNOLOGIA PROIEKTUAK 3. DBH

HELBURUAK

EDUKIAK

- Irakurgai edo testuen esanahia ulertu eta bereganatzea.
- Eraikitzen duten objektuaren krokisa eta despiezea, eskalan eta akotatuz egitea.
- Erregela eta eskuaira erabiliz, behar den materiala zehatz neurtzea eta, materialaren aprobetxamendua kontuan izanik, moztea.
- Gure inguruan erabiltzen ditugun plastiko eta eraikuntza materiala motak identifikatu eta ezaugarri nagusiak zehaztea.
- Energia elektrikoaren garrantziaz jabetu: sortzeko erak eta gizartean eta ingurugiroan duen garrantzia. Gastuaren kalkulua.
- Elektrizitatea lantzean, segurtasun arauaz jabetu eta betetzea.
- Taldean lan eginez, ardurak banatu eta betetzea, tailerrean dauzkagun materialak eta erremintak egoki erabiliz.
- Ordenagailuz proiektuaren txostena idatzi eta era egokian aurkeztea (word/writer eta excel/calc erabiliz). E-mailez irakasleari bidaltzea.
- Internet erabiliz, informazio zehatza aurkitzea.
- Oinarrizko automatismo bat aztertu eta eraikitzea.

Materialiak

- Plastikoak eta eraikuntza materialak: sailkapena. Nola lortzen diren. Propietate eta ezaugarriak.

Marrazketa

- Cavaglieri eta isometriko sistema.
- kotak eta bistak: errepassoa.

Elektrizitatea

- Zirkuitu eta magnitude elektrikoak: birpassoa.
 - Serie, paralelo eta misto antolamenduak.
 - Neurketa tresnen bidez magnitude elektrikoaren balioa zehaztea.
 - Oinarrizko makina elektrikoak: sorgailuak, motorrak eta transformadoreak.
 - Simulagailuak erabiltzea zirkuitu elektrikoaren funtzionamendua egiaztatzeko.
 - Segurtasun arauak.
- Energia eta energiaren eraldaketa**
- Energia elektrikoa: nola sortu, garraiatu eta banatzen den.
 - Zentral motak. Energia berriztagarriak. Kutsadura.
- Informazioaren teknologia**
- Testu prozesadorea eta kalkulu orria: birpassoa.
 - Ordenagailu bidezko diseinu grafikoa: Auto CAD.